



Lau militante atxilotu dituzte Ipar Euskal Herrian

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/11/2023

Angelun dagoen Bouygues Immobilier kontrako ekintza baten harira atxilotu dituzte.

Gaur goizean 06:00ak aldera lau militante atxilotu dituzte Kanbon eta Itsasun eta Baionako polizia etxera eraman dituzte kalteak eragitea leporatuz. Atxilotuak Filipe Laskarai, Janine Beyrie, Jakes Bortayrou eta Dominika Daguerre dira Euskal Irratiak jakinarazi duenez. Dirudienez atxilotetak Angeluko Bouygues Immobilier kontrako ekintza baten harira heman dira. Ekintza hau abenduan izan zuen lekuko, non Ostia kolektiboak Bouygues Immobilier higiezinaren egoitza lurrez eta lastoz bete zuen. Ekintza honekin Bouygues Immobilier enpresak Marieniako hirigintza proiektua salatzeko burutu zen, izan ere, enpresa honek Kanboko Marieniako lurretan 94 etxebizitza eraikitze proiektua publiko egin zuen. Kolektiboa ekitzaren egunean «herritarren beharrei baino, logika kapitalistari ihardukitzen diola» gaitzetsi zuen.

(Euskal Irratien irudia)

Gaur 12:00etan hamarnaka pertsona Baionako komisaldegiauren aurrean konzentrazio bat burutu dute atxilotuekin elkartasunea, bide mozketa bat eginez. Geroago 15:00ak aldera aski utzi dituzte atxilotuak eta martxoan epaituak izango direla jakinarazi dute.

<https://eh.lahaine.org/lau-militante-atxilotu-dituzte-ipar>